



Belakortu

etxebizitza

Aldacrak: Belakortubarria
Ahozkoa: Belakortu barridxe



43° 9' 58"

2° 35' 27"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... una casa molino llamada de Belacortu o sea la principal de Belacortubarri en jurisdicción de Berriz, que mide ciento dos estados... se compone de piso llano con dos muelas de maíz y una de trigo, piso principal con dos viviendas y camarote..."
DJE 6/47 or. (1891)

Zalduerrekaren ur-emariak aprobetxatuz, *Anbotobitxi* azpian martxan jarritako errota honen gaineko lehen aipuak XIX. mendean aurkitzen ditugu: *Belacortu nuevo* (1857, BUA, Viv.) ageri da, aurretik eraikitako *Belakortuzarra* baserriak bereizteko (**Ikus Belakortuzarra**). Dokumentazioan aldaketa gutxi jasan ditu, izenari erreparatuta betiere, "nuevo" osagaiarekin la-

gunduta agertzea baita aldaketa bakarra.

Errota izandako baserria da, nahiz eta begiratu batean ez duen produkziarako eraikinen itxurarik. Baina etxea soilik izan balitz, ez zuen izango beheko solairu itsua, arku ederraren alboetan faltan botatzen diren leihoak barik, *Goikoerrotan* (**Ikus Goikoerrotan**) gertatu antzera, honetan

toponimia

Belakortu izeneko etxe bi daude Berrizen zaharra, jatorrizkoa dena eta berrria. Dokumentazioan eta ahoz Belakortuzarra eta Belakortubarria esaten bazaie ere sarritan Belakortu huts hutsean erabiltzen da berriena izendatzeko. Badirudi izenaren osagaiak bele txori izenetik sortutako Belako pertsona izena eta artu. Bigarren osagai hau ilunagoa da. Mendebaldean nahiko arruntak dira pertsona izen eta artu osagaiak osatutako baserri eta bereziki dorre izenak: Martiartu (*Erandio*), Markoartu (*Okondo*), Gastiartu (*Okondo*), Untzaluartu (*Igorre*). Inoiz igartu-rekin lotu izan da, eta egia da Gordexolan badela antzekoa den Sanchoyerto eta Zamudion Galbarriartu, baina gure irudiko gaia ilunagoa da eta jabetzarekin lotu behar dela uste dugu, agian hartu aditzarekin. Gordexolako izena bitxia da euskal eremuan ageri delako. XVIII. mendean Sanchuyerto eta Sanchuyerto moduetan ageri da.



BUA / Mapa topografikoa, 1933

alde batean falta baita. Lehenengo solairua da bereziena eta honetan indarra dute arku gaineko hiru baoek, leihoak eta erdiko balkoiak. Solairu berean daude beste bi leiho, izkinetan; eta ganbaran, beste bi, lehenengo solairukoekin lerrokatuta. Bi isurialdeko teilatua dauka, oso hegal zabalekoa eta horri eusteko, ohikoa den legez, egurrezko besoak erabili zituzten.

Etxearen hormak harlangai-tzaz jaso zituzten eta harlandua erabili zuten, kantaletan, bao guztien ertzetan eta arkuan. Honen giltzarrian daukagu idatzita egin zeneko data: 1807.